

Francoren bilobari gutuna antzezlanaren martiaren 18an Igorren

13. orrialdea

San Josetako bertso saioa

Miren Amuriza, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Maialan Lujanbio egongo dira Igorren martiaren 19an, 19:00etan, Kultur Etxean, San Josetako bertso saioan. Hau Arratiako bertso plazarik zahar eta inportanteenetakoa da eta beti maila goreneko bertsolariak kantetan dabe bertan.

12. orrialdea



Atutxa zazpigarrenez txapeldun Binakako Urrezko Aizkoran

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

270

2017ko martiaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Film eskeintza handia

Areatzan eta Igorren Laburbiran; Artean, Ekozinemaldian eta Lemoako Kolonbiako Bake Prozesuaren gaineko filmak ikusteko aukerea dago.



Hamabostaldi honetan, film konprometidu ugari gehituko jakoz, Arratiako kultura eskeintza aberatsari. Areatzan eta Igorren, Laburbira euskerazko film laburren zirkuituan, 8 film proiektuak dabez; tartean Diman egindako *Elemakarrak*. Topaguneako partaide dan Zertu Kultur Elkarteak antolatuten dau Laburbira Arratian.

Artean, Ekologistak Martxan-ek antolatutako Ekozinemaldiko lau film, saio bitan, ikusi ahal izango dira Herriko Bentan.

Lemoan, martiaren 13an hasi zan Kolonbiako Bake Prozesuari buruzko dokumental eta eztabaida ziklo bat Mundubat-ek eta Udalak antolatuta. Hamabostaldi honetan beste saio bi eskeiniko ditue.

Pelotea eta palea Eskola Kirola programako aukerak



Eskola Kirola programa barruan egon arren, eskualdeka jokatu izan da orain arte eskupeletoa. Arratia-Nerbioi Txapelketan, eskualde biko eskola guztiak bazean ebazan jai baten jokatzan ziran finalak.

Aurten aldaketak egon dira eta Eskola Kirola programaren arauetara lotu egin dira partiduetak eta finalak. Kirola eginez gozatzea eta euren eguneroko bizitzan kirola egiteko ohiturea hartzeako helburua, konpetidutearen gainetik ipini gura izan da.

Ez da pelota eskolak bizi izan daben aldaketa bakarra. Areatzan eta Zeanurin, neskak palan hasi ziran orain urte batzuk eta 25etik gora dagoz eskola bakotxean. Modalidade honegaz, nesken presentzia errekupeau gura dabe frontoietan. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Gernikako ekitaldirako hasi da prestatzen Arratiako OEE

Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformeak, apirilaren 29 eta 30eko Ongi Etorri Gernika 2017 ekitaldian parte hartuko dau. Egun horreetan, Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek, Gernika bonbardatu eben 80. urteurrenean, gerren kontrako ekitaldi masibo bat antolatu gura dau, gerratik igesi eta beste persona migraduak gurean ondo etorriak dirala adierazoteko. Aurretik sensibilizazio kanpaina egingo dau Arratiako OEEk.

Urtebete da Arratiako Plataforma sortu zanetik eta harrezkeroztik, Bizkaikoagaz koordinata, hainbat ekintza egin ditu erre-fujiaduak laguntza bialtzeko eta Arratia harrera herria izan daiten.

5. orrialdea

IGORRE

Autopista elektrikoaren kontrako konzentrazioa REEkoen aurrean

Martiaren 6an, 12:00etan, udal ordezkariak eta REEkoak batzarra eukien goi-tensinoko linearen gainean berba egiteko. Herritarrek horren jakitun, udaletxe aurrean konzentrazioa deitu eben. Batzarra Kultur Etxean egin zan atzanean.

Udala, ingurumen eta herritarren interesak defendituteko, REEko ordezkariakaz eta BFAkoakaz bilerak egiten dabil. **7. orrialdea**

LEMOA

Urte bat baino gehiagoko hainbat proiektu martxan ipini ditu Udalak

Martiaren 1ean onartu ziran 2017ko aurrekontuak Lemoan, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzioagaz. Igaz baino diru gehiago kudeatuko dau Lemoak, %1,7, eta aurreko urteetako diruzaintza gerakinari esker, aurrekontu handiko eta urtebete baino gehiago behar daben proiektuak ekingo deutsee. Kultur Etxeko proiektuaren erredakzioa eta Hiri-Antolamenturako Plan Orokorra dira horreetako batzuk. **5. orrialdea**

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



ARRATIA KOLOREETAN

ARANTZARTE DANTZA TALDEA

Aurten 43 urte bete dauz Arantzartek. Heldua dan arren, bihotzez gazte dago ondino jantza taldea eta familia zabala osatzen dau. Umeen taldetik hasi, hasi-barrientzako ikastaroagaz segidu eta nagusien taldera arte makina bat jantzari, guraso, musikari eta laguntzailek osatzen dabe Arantzarte; txitean-pitean batzean diran "viejas glorias"ak ahaztu barik (honeek, egia da, gehiago batzean dira afaiteko eta astegoenpasatarako entseguetarako baino).

Euskal kulturaren zuzturtutako jantzak ikasi, irakatsi eta munduan zehar erakutsi doguz. Eta egia bada, beste kultura eta jente batzuk ezetuteak aberastu egiten dauala, taldean sano aberatsak

garala esan geinke. Izan be, ha- maika herrialdetan egon gara euskal jantzak eta bide batez nor- tasuna, hizkuntzea, parrandazale- tasuna... lau haizetara zabaltzen.

Aurten be gura beste zeregin daukaguz aurreikusita eta burubelari gabiz horreexek patxadaz beteteko ensaietan. Gabonetako emonaldiaren ostean udabarria kargautu jator- ku: martiaren 25ean Arratia Kantuz ekimenaren barruan jantzan egitea tokauko jaku eta baita Aste Santue- tan, Gazte Akelarrea Igorrera hel- tzean danean be. Igorreko jaietako urteroko ziteagaz kunplidu eta udan Austria eta Polonia bisitauko doguz.

Beraz, badakizu. Euskal jantzak gustuko badozuz, izerdi apur bat botateko prest bazagoz, euskal



giroan eta konpainia onean ibil- tea gustetan bajatzu Arantzarteko

entsegu lokaleko atea beti zabalik topauko dozu. Erdi.

Arantzarte Dantza Taldea (Igorre)

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Martiaren 13tik 19ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 20tik 26ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 27tik apirilaren 2ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notariorza

94 673 92 26

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Ines Arenas, Iker Perez eta Ismael Martinez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



ZEURE BERBEA

Danak ez dau balio herritarrengan eretxi bat sortu arazoteko

Zezeileko osoko bilkuran, EAJ-PNVk ezetz bozkatu eban Sarek hainbat euskal presori aplikau jakiezan zigor bikoiztuak salatzeke aurkeztu eban mozinoa. Preso honeen artean dago Iñaki Bilbao Lemoako herrikidea.

Gure ustez Udalak, toki erakundeak dan aldetik, ezer gitxi egin ahal dau arlo honetan, gaiak udal esparrua gaintzen daualako eta eskuduntza goragoko erakundee-na dalako. Gainera, udaletan halako idazkiak onartzeak ez deutse onurarik ekarriko gaur egun preso dagozan personai. Hori bai, zalantzarik barik, prest gagoz eta ados gagoz Udalak, dituan ahalmenakaz eta aukerakaz, Iñaki Bilbaoren egoerea hobetzeko baliabideak eta bitartekoak jarri daizala.

Ez genduke ahaztea gura EAJ-PNVk urteak daroazala Gobernu Zentralari Espetxeen gaineko eskuduntza eskatzen. Eta azken honen ardurakoa da espetxe arloko hitzarmenak eta neurriak betetea.

Aukerea aprobetxau gura dogu Lemoako Bagabiz Badatoz Ekimena izeneko plataformak zabaldu dituan informazio faltsuak guzurtatzeko. Ez dakigu gurata

egin dan edo ezjakintasunagaitik izan ete dan, baina plataforma horrek BEGITU aldizkarian otsailaren 15eko edizinoan baieztatu eban Amorebieta-Etxanoko Udalak mozino horren alde bozkatu ebalako. Ba, hori be ez da egia, Amorebieta-Etxanoko Udalean, Zornotzan onartu zan mozinoa Etxerat alkarrean aurkeztu ebalako, ez Sarek. Edukia bere ez da bardina izan.

Hori dala eta, idazki horren arduradunai eskatu gura deutsegu hurrengo batzuetarako, informazioa kontrastatu dagiela, komunikabide baten publiko egin baino lehen. Ez da etokoa herritarren artean informazio faltsuak zabaltzea. Politikan ez dau edozerk balio eta guzurraren bide horretan EAJ-PNV beste aldean egongo da beti.

LEMOAKO EAJ-PNV

Eskola eta erlijioaz... buelta bat Europatik

Erlijioaren irakaskuntza eskolan baloretako orduan, ikuspegia osotuteko baliagarri suertatu leitekete Europara begiratu bat emotea, sarritan hemen erlijioaren

presentzia geure historia hurbil eta gorabeheratsueguz lotzean dogu-eta.

Europar erlijio irakasgaia presente dago ia herrialde guztietan (Finlandian, Suedian eta Holandan esaterako, nazino honeetan hezkuntza maila bikaintzat hartzea galarazoten ez dauala). Irakasgai hau ikasketa-planetan presente ez dagoan kasu bakarra Frantzia da (eta ez Frantzia osoan, eskualde batzuetan onartzen da-eta). Nazino batzuetan irakasgaia derrigorrezkoa da (Alemania, Finlandia...) eta beste batzuetan aukerakoa (Espainia, Belgika...). Azken honeetan erlijio irakasgaia aukeratzeko ez dauanari beste irakasgai bat eskeintzen jako. Badagoz nazino batzuk non erlijioaren ikaskuntza eskolan egotearen lege-oinarria konfesino erlijiosoak sinatutako akordioak eta hitzarmenak diran (Espainia, Lituania, Kroazia...); beste herrialde batzuetan, ostera, zuzenean konstituzino berbera da oinarria (Danimarka, Luxenburgo, Holanda...); eta beste batzuetan hezkuntza legeen mailan onartuta dago.

Aitatutako herrialdeetan erlijioaren presentzia konfesionalak ez dau talka egiten hezkuntza-sistemeagaz, asmoa ez dalako dotrina edo katekesia irakastea, baizik eta fedea eta kultura alkarriketan jartzea. Gizarteak, gure seme-alaben heziketarako eskolarei aitortzen deusagun garrantzi erabatekoa kontuan hartuta, familia askorentzat hezkuntza osoa benetan osoa izateko dimensino erlijioso barnean hartu behar dau; horrek ez dau behartzen beste inoren aukerea. Legeak babesten dauan pluraltasun horretan oinarrituta, balio komunak (errespetua, tolerantzia, alkartasuna...) danongan sendotu daiguzan eta gura dauanarentzat balio erlijiosoai (trazendentziaren zentzua, baldintza bako parkamena...) leihoak irekitzeko aukerea emon deiogun; holan jokatzea alkarbizitarako onuragarria dalakoan gagoz.

25 GURASOKO TALDE BAT

ERETXIA



OLAIA URKIZU

AUMko Gizartekintzako Teknikaria

Umeak, genero indarkeriaren biktima?

Genero indarkeriaren biktima buruz berba egiterakoan gehienetan andra baten irudia etorten jaku burura, baina zeharkako biktimak deritxanak, non dagoz? Zeharkako biktimak ez litzateke berba egokia izango seme-alabez berba egiterakoan, biktima zuzenak baino.

Umeez berba egiten dogunean, gazteegiak diranean, idea faltsuak izaten doguz: Genero indarkeria jasaten daben umeak gitxiengoak dirala; etxean gertatutakoak ez dirala oharitzen; egoerak ulertzen ez dituen, ez deusela eragiten; laster ahaztuko dabela eta horrek ez dauala euren bizitzan eragingo... baina gaur egun hori holan ez dala badakigu, indarkeria jasaten dabelako, amak edota eurak jasaten daben ondorioez kontzientzia daukielako eta bizi izandakoaren traumak, osatetik edota ahaztetik oso urrun dagozalako.

Espainiar estadian 800 mila ume baino gehiagok jasan izan dabe genero indarkeria, kopuru hau umeen %10 da. Zoriturrez, ondino oso gitxi egiten da berba ume honeez, ondino biktima ahaztuak edo ikusezinak diralako. Baina zelatan jasaten dabe indarkeria?

Genero Indarkeria 3 fase dun ziklo bat da eta umeak fase guztiak bizi ditue.

1. fasea, tensino pilaketearen aldia. Etxean dagoan tensino klima nabari dabe eta honek ondoeza eta urduritasuna eragiten deutse. Etxeko tensinoa, estatusuna eta bildurra sentiduten hasten dira. Bildurragaz eta indefensioagaz biziten dabe zer gertatutako danaren zain, zikloa aurretik bizi eta gero, erasoan fasea

ez heltzeako esperantzeagaz estrategia desbardinak aurrera erooten dabez euren bizitza baldintzatuta.

2. fasea, eraso biziaren aldia. Ume asko eraso egoerea ikustera behartuta egoten dira, traumatikoa izaten da. Oihuak, mehatxuak, negarrak edo apurtutako objektuen zaratak entzun edota nahiz eta ezer ez ikusi edo entzun, amarengan ondorengo efektuak nabaritzen ditue. Aurreko fasean sortutako estatusuna eta bildurra areagotzen da, ondorio larriagoak sortuz eta izua be agertzen da amari zauri larriak edota hilko dan bildurraz. Egoerearen aurrean zelatan jokatu ez dakienean, errudun eta galduta sentitzen dira.

3. fasea, maitaleen fasea. Erasozaileak egoerearen kontzientzia hartu ahal dau, parkamena eskatuz, eta egoera aldatuko dala zin egiten deutse, damua adierazoz. Umeak lasaitasuna sentitzen dabe, baina nahasketea daukie buruan ez dabelako egoera ulertzen. Hasikera baten euren jarkerak aldatzen ditue. Zikloa aurretik bizi izan daben, fase hau estatusunez bizi dabe ondoren etorriko danaren barri badaukielako.

Erasotzaileagaz bizi izateak, umeengan izua eta galbideratzea sortzean dau. Izua, indarkeriak sortua eta galbideratzea jarraitzeko kaltegarriak diran ereduak erakusteagaitik eta askorentzat adibide izango diranak, nahiz eta mina sortu.

Nahiz eta gurasoak banandu, ume honek erasoak sufriduten jarraituten dabe. Askotan erasozaileak umeak erabilten dituelako amari mina eragiteko. Horregaitik 2015. urtean legea aldatuz, umeak be biktimak dirala kontuan hartzean da eta zaindutako bisitak edo urrunte aginduak euki lekiez besteak beste.

Egoera honek umeengan dituen ondorioak afektiboak, sexualak, sozialak, fisikoak, ekonomikoak, eta abar izan daitezke eta umeai arreta osoa emoteko Arratian, Zutitu-k laguntza psikologikoa bertan emoten dauanetik; hau da, 2016ko urtailetik, zeharka edo zuzenean jasan daben indarkeriari aurre egiteko, 5 adin txikiko be atenditzen ditu.

Gure egin beharra arreta osoa emotea da, genero indarkeria bizi dabenai, andra zein seme-alabai, esku hartzearen helburua lortzeako: indarkeria barik bizi daitezkan!

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Kamarea



Gure herrietako etxe eta baserri askoren teilatupean dagoan espazioari edo gorengo pisuari kamarea esaten jako (kámarea, agoskatuta). Euskera batuan, ganbara da. Kamarea tresnak eta bestelako gauzak eukiteko erabilten da, behar ez doguzan trasteak batez be. Lehenago, kamarearen goiko aldean edo goitegian lastategia egoten zan, bedar-sikua eta agotza gordetako. Udan eta udagoienean batuten diran frutak, sagarrak esaterako, sikatuten ixteko lekua izaten da.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpresak Batzuen jarduera

MONDRAGON

LUMATUTEN

Homosexualidadetik
heteronormaltasunera

JANIRE LOPEZ

Lesbianas nunca más. Un viaje transgénero hacia la heteronormalidad artikulua kasualidadez topau dot interneten. Izenburuak dinoanez, lesbiana izatek heteronormala (!?) izateko bidea ebakuntza-gelan egin barri dauan Erikak bere ibilbidea azaltzen dau bertan, argazki modakoak ederto ilustrata. Pozik da Erika, transgenero biaje hori egin izanagaitik. Eroso, bere normaltasun-jantzi estreinau barrian.

Abilak gara gizakiak etiketak sortzean. Momenturen baten-eta praktikotasunagaitik seguru-erik, gure itxureari erreparau, eta "arra" eta "emea" kategoriak sortu genduzan. Arra ala emea. Baita identitate sexualarenak be, lehen etiketa honen barruan, modu berean. Heterosexuala. Homosexuala. Bisexuala. Eta kuriosoena da etiketa horreek zerotik eregi ostean, geure buruari saldu deusaguzala, merke. Eta jan, kontrako ezarririk joan bajakuz be; etiketak sortzean abilak

bai, baina horreen menpeko bihurtzen be, ondo subnormalak izaten garalako.

Identidade arazotzat daukaguz psikiatren konsultak beteten deuskuezan "transgenero" kasuak. Gaixotzat daukaguz, guk geuk sortutako kutxa estu eta zarratu horreetan kabitzen ez diranak; gaixotzat, transformazioa burutu bitartean. Eta, egia esan, gaixotu egiten dira, ez deusegu eta behin betiko generoa ebatzi artean identidaderik aitoritzen. Definitu beharrean, baldintzatu egiten gaituan aingura da orain generoa. Gure baitako behar eban, eta gu geu bihurtu gara haren baitako. Generoa bizi behar genduan, eta generoak bizi gaitu.

Zinez ederra zara, Erika. Ederra zara orain, eta ederra zinan lehen. Zu ez zara generoa. Eta generoa ez da zu. Zakil batek ez zaitu ez zarana bihurtuko. Eta zakilik ez izateak ez zaitu izan gura dozunetik aldentzen. Ez dago zertan ar ala eme aukeratu, normala izateko. Biak izan zein tekez. Edo bietako bat be ez. Ederra zara. Nabarduna guztiakaz. Ederra. Konplejutasun osoan. Ez dago zertan normaltasuna bilatu, normaltasuna zuzan dago-eta. Ez dago ezer sendatzerik, gaixorik ez dagoanean.

*** GEURIA hilabetekarirako idatzitako artikulua laburpen bat**

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Zu eta ni, biok hemen, orain, hurbil edo urrun bihar, etzi, amaigabe bagara, izango gara zu niretzat, ni zuegatik ni eta zu, biok.

Izarren argian, olatuen kresalean eztiaren gozoan, negar-arpuluen gazian hitzen egian, bihotzaren epeletan zu eta ni, biok.

Hasi zenuen bizitza nigandik magalean, bularraren beroan elkarren ondoan, gertutasunean maitasunaren besoetan ni eta zu, biok.

Dastatu ditugu pozak, usaindu dugu ilusioa ltxaropena besarkatuz, ametsak laztanduz Penak irentsiz, mina onartuz Zu eta ni, biok

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Batera, biok

Hazi zara hazi ulertzen, babestuz ene irriak malkoak, nahiak eta atsekabeak zorientasuna, bihozmina ni eta zu, biok.

Aurrerantzean, denboran zehar alaitasunean, oinazean batzuetan, besteetan laino gardenenen igo eta hegan egingo dugu zeruaren urdinean, euriaren hotsean, ilunaren hutsean bizitari musu emanaz, etorkizunaren gordinari esku emanda datorrenari begietara begiratuz zu eta ni, biok, batera.

BEGI TXINDORRA

Martiaren 12an, Arratiako andrak egindako mendiko buelteak ez eban euki Alex Txikonen espedizioaren epeka. Dana dala, Artea inguruko mendietan, andrazkoen eskubideak aldarrikatzen dabezan bandera moreak ikusi ziran. Gero musikea eta kopautxuagaz, burruka honetan -hau bai epikoa- gero eta jente gehiago dagoala ospatu eben.

Munduko leku guztietan ez, baina hemen bai: gure iraultza honetan jantzan egin daiteke. Eta mendian ibili. Eta musikea entzun. Eta alkarrerri solidaridadea, errespetua, adiskidetasuna eta maitasuna adierazo. Diferentzien gaintetik, konpainerak garalako burrukan eta bizitzan.

Asko gara. Batzuk baino gehiago. Bat egin arren.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
kalegatu@agoa.com
R.P.S. 21/06

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3, 48550 IZEMOIA, Bizkaia
Tel: 000-480839000-000200717

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak Ongi Etorri Gernika 2017rako prestatzen hasi da

Orain urtebete sortu zanetik, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformea sendotuz joan da, eta sensibilizazio eta salaketa lan handia egin dau Arratian. Aprilaren 29 eta 30ean Gernikan izango dan ekitaldian parte hartuko dau.

Erredakzioa

Bertan, ekitaldiaren helburuagaz bat eginda, errefujiaduen egoeraren aurrean "sumindura eta gaitzespena" adierazo, gobernuen pasibotasunaren kontrako jarraera agertu, eta aukerak planteauko ditu Arratiako OEEK.

Gernikako ekitaldian ahalik eta jente gehienak parte hartu dagian sensibilizazio eta salaketa ekintzak dabilz prestatzen. Aprilaren 5ean, Arratia Institutuak ikasleentzat gaiaren inguruko World Cafe-a antolatu dau eta Arratiako plataformea han egongo da. Institutua gaiaren gaineko Unidate Didaktiko bat dabil prestatzen eskola eta institutuetan erabilteko. Aprilaren 7an, CEAr-en, asilo eta gizakiaren salerosketaren gaineko tailerra egongo da Kultur Etxean. Korrikan be presentzia eukiko dau Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek.

Ongi Etorri Gernika 2017 ekitaldian be hartuko dau parte Arratiak. Bertan, Espainiako estatu eta beste herrialde batzuetako milaka lagun batuko dira, bonbardaketaren 80. urteurrenean, "gerririk ez oihukatze eta migratzaile eta errefujiaduak ondo etorriak dirala esateko". Lemoako Intzuntzako plaza gorritik Gernikara oinez joateko Arratiako zutabea urtengo da goizeko 10:00etan. Bizikletaz, autobusez eta trenez joateko aukera be egongo da.

Errefujiaduak harrerea

Eusko Jaurlaritzak, Eudelen birtartez udaletara gutun bat heldu arazo dau, harrera egiteko daukiz balibideak zehazteko eska-



Gernikarako bidean seinaleak ipiniko ditu Arratiako OEEK.

tuz. Erakundeak behar egiteko prest dagoz taldekoak, baina hori ez dala nahikoa uste dabe. "Eskatzen dabena bialdu behar da, baina jente asko dago, Calais-etik datozenak berbarako, linea ofizialean ez dagozanak" azaldu eban Mikel Zuluagak. Erakundeen linea ofizialetik kanpo geratzen diranak be hartu ahal izateko moduak pentsau behar dirala adostu eban Arratiako OEEK martiaren 1eko batzarrean.

Arratiako OEE

Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak 2016ko zezeilan sortu zan eta asko izan dira harrezkerotzik egindako ekintzak. Udaletxeetan mozinoak sartu, Igorrerainoko Arratiako martxea antolatu eta errefujiaduak bialduteko dirua biltzeako hainbat ekintza egin ditu. Mikel Zuluaga eta Begoña Huarteren ekintzaren inguruan be berbaldiak, mahaiak, konzentrazioak eta abar antolatu eban plataformeak.

Arratiako OEEren helburuak sensibilizazioa eta salaketea dira. "Herriaren sensibilizazioa oso inportantea ikusten dogu, Ceuta, Melilla, Afrika eta Europako mugetan gertatzen dabilenaren aurrean" dino Juan Totorika OEEKoak. Errespetu faltea, errazakeria eta xenofobia salatutea, harrera duina emoteko instituzinoak estututea eta alkatasuna bultzatzea dira Arratiako taldearen helburu batzuk.

LEMOA

Urteetan zehar egiteko aldaketak abiatzeko kontuak Lemoan

Martiaren 1ean onartutako aurrekontuen arabera, 3.849.870 euro kudeatuko ditu udalak, igaz baino 63.266 euro gehiago (%1,67). Inbersinoetarako diru gehiago egoteaz gainera, aurreko urteetan aurreztutako diruagaz be obra handiak egiten hasiko dira.

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak azaldutakoaren arabera, aurrekontu honeek, aurreko urteetako lan ildo estrategikoak islatzen ditue: bardintasuna, memoria historikoa, gazteria, aisia, euskerea. "Aldatuten dana da inbersinoen kapitulua, urteko obretako plangintza aldatuten dalako". EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzioagaz onartu ziran kontuak.



Lemoa.

Erredakzioa

Aurrekontuetako inbersinoetako diru partidarik handienak Errekalde auzuneko sanamentuak eta Herradurako parkeko aterpeak eroango dabez. Orain dala pare bat urte hainbat proiektu bozkatu eban jenteak. Lehentasunik handiena, Elizondoko aisigunea barriztutea izan zan eta hori igaz egin eben. Bigarrena Herradurako parkean aterpe bat ipintea atera zan eta horretarako aurreikusitako 165.000 euro aurtengo aurrekontuetan.

Kultur Etxeko proiektuaren erredakzinorako dirua be badago aurrekontuetan. Izan be, Kultur Prozesua amaitu da eta hor jasotako informazio guztia konkursora aterako dabe, arkitektoa izentatzeko eta honek proiektua egin dagian. Obrak barriz, diruzaintzako gerakinagaz egiteko asmoa adierazo dau alkateak. Gerakin hau 1,5 milioe euro ingurukoa izango dala aurreikusitua da. "Obra handiak egiteko aurreztu dogu dirua. Kultur Etxeko obrak egiteko, 700.000 euro behar dira

eta guk ez daukagu presupuestoan ahalmenik holako partida bat egiteko" dino alkateak. Izan be, inbersinoetarako kapitulua 729.000 eurokoa da.

Arraibiko obrak be aurreko urteetako diruzaintzako gerakinagaz egingo dabez. Auzunea guztiz barriztuko dauan proiektua igaz egin eben. Obrak hiru zatitan egingo dira eta lehenengo fasea aurtan hasteko asmoa dauka Udalak.

Hiri-Antolamenturako Plan Orokorra egiten hasteko prozesua martxan ipintea Estudio K-ri adjudikatu eutsien igazko amaieran. Aurtan, parte hartze prozesua abiatu dabe.

Diru gehiago


Udalkutxatik diru gitxiago aurreikusitua arren, aurtengo aurrekontuak diru gehiago eukiteko errazoi bi aitatu ditu alkateak. Alde batetik, aurtan obra batzuk egingo dira, "eraikuntza bat altxauko da" eta lizentzietatik diru gehiago sartuko da. Beste alde batetik, personaleko kapituluan atzerapenak pagetako aurreko urte bietan egondako diru partidea, aurtan

ez dago, atzerapenak pagauta dagozalako. "Lanpostuen balorazioa egiteko prozesua luzea izan da. Atzerapenak ordaintzeko diru partida bat behar zan, soldatak igo ezker atzerapen horreek pagau ahal izateko. Hori igazko abenduan amaitu genduan, atzerapen horreek guztiak ordainduta dagoz eta soldatak egokituta".

EAJ-PNVren abstentzioa

Lemoako EAJ-PNVren ustez, aurrekontuak ez deutsee emoten erantzunik biztanleriaren arazoai. "Aparkaleku gabeziaren arazoari ez deustie konponbiderik topatzen, ezta ikastetxe zein Kiroldegiko segurtasun faltetari". Gainera, herriko merkataritza sendotuteko eta "itxiera jarraia sahistuteko ez dago ezelango ekintza zein aurrekontu partidarik".

Jeltzaleen arabera, "beharrak eta positiboa dan partida bakarra" 1936ko Gudarien Plazako jolas lekuaren estalkia egitekoa da. Izan be, proposamena euren hauteskunde programan be baegoan eta behin baino gehiagotan aurkeztu da.



IGORRE

Memorian oinarritutako bakearen gaineko berbaldia emongo dau Aintzane Ezenarro



eta Giza Eskubideen Institutua gure herriko memoria demokratikoa jaso eta transmitiduteko egitekoagaz jaio zan. Azken ehun urteetan indarkeriak markatuako esperientzia traumatikoen memoria gordetzeko eta transmitiduteko: "gerra zibila, diktadura frankista, ETaren terrorismoa eta legez kontrako kontraterrorismoak". Baita bizikidetzeta demokratikoa eta, giza eskubideen eta bakearen defentsan oinarritutako gizartea eregitzeko eta defendiduteko ahaleginaren memoria gordetzeko be.

Arratiako Eleizak antolatu dau berbaldia. Izan be, gai honen inguruan beharrean dabil. Aurreko urteetan, beste batzuen artean, Juan Mari Uriarte, gotzaina, eta Jon Mirena Landa, Zuzenbideko katedraduna, Ibarretxeren gobernuan Giza Eskubideen arduraduna izandakoa konbidau dauz. Arratia mailako topaketak be eratu izan dauz, eta beste herrietako parrokiakaz batera, Ziortzara bake ibilbideak antolatu dauz bost urtetan.

Erredakzioa

Martiaren 31n, Arratiako Eleizak antolatuta, Aintzane Ezenarro Gogora Institutuaren Zuzendariak, "Memorian oinarritutako bakea: etorkizunaren bermea" izeneko berbaldia emongo dau Igorreko Lasarte Aretoan, 19:00etan.

Gogora, Memoria, Elkarbizitza

DIMA/LEMOA

Andrentzako tailerrak Dima eta Lemoan

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen barruan, espazio publiko eta pribaduan andren lidergoa sustatzeko tailerra antolatu dau Lemoako Udalak. Hiru saio izango ditu, martiaren 22an eta 29an, eta aprilaren 5ean, 17:00etatik 19:00etara. Irantzu Varela izango da formatzailea eta gazte-eraz izango da Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Andren jabekuntza prozesuak konzientzia hartzea, liderra izateko gaitasunak garatzea eta antolaketa kolektiboa behar dauz. Tailer honek bigarren premina horri erantzun gura deutso. Tailerlean andrazkoak indartzeko tresnak eskeiniko dira, euren bizitzako kontrola izan dagien eta gura daben espazio publiko edota pribaduetan lidergoa izateko.

Maitasun erromantikoa

Hilaren 31n, Maitasun erromantikoa buruzko tailerra emongo



Emmeline Pankhurst.

dau Josebe Iturriozek Dimako udal-letxeko Batzar Gelan. Ikastaroan maitasun erromantikoren mitoak aztertuko dira hiru ikuspegitik: feministea, kulturartekotasun ikuspegitik eta maskulinitate barrietik. Maitasuna desmitifikatu gura da, andren eta gizonen arteko desbardintasunari egiten deusnak ekarpena gaintiduteko.

AREATZA

Areatzan aurten egin gura dabe herri galdeketea

Areatzako Gure Esku Dagoko lan taldean uste dabe aurtengoa urte egokia izan daitekela galdeketea antolatzeko. Izan be, hurrengo hileetan herri askotan galdeketa egingo ditue; Zeanurin maiatzaren 7an izango da, hain zuzen be.



Erredakzioa

"Zemendian beste galdeketa olatu bat etorriko da eta horrek sortuko dauan indarra aprobetxatu gura dogu geurea egiteko" dinoe Areatzako GEDkoak.

Hau balorau eta aztertzeko billaroztarrakaz berbaldi-asanbladea egingo dabe martiaren 24an, barikua, 18:00etan Areatzako udaletxean. Anartz Goia, Goierriko Koordinazio arduraduna; Lierni Olmedo, Debagoienako koordinatzailea, eta Alex Zenarruzabeitia, Bizkaiko koordinatzailea izango dira bertan. Honeek erabakitze eskubidearen inguruan,

martxan dagozan herri galdeketez, eta etorkizunean emongo diran pausuen gainean egingo dabe berba.

Herriarren inplikazio beharra

Areatzako GED lan taldekoen helburua, herri galdeketea martxan ipinteko behar dana azaldu eta jentearren inplikazioa bilatzea da. Izan be, herri galdeketearen prozesua abiatzeko alkarrean eta batzorde sustatzailea sortu behar dira, sinadura bilketzea martxan ipini, itauna adostu, galdeketearen deialdi publikoa egin eta data ebatzi behar dira. Horregaitik herriarren inplikazioa ezinbestekoa da.

AREATZA

Garagardo dastaketea Areatzako tabernetan aprilaren 1ean

Erredakzioa

Areatzako Garagardozealen Elkarrean-Berlarok antolatuta, aprilaren 1ean arrastiko 18:30etik aurrera, The Quiet Cornerren hasita, Basqueland Brewing Project (BBP) etxeko garagardoak dastatu ahal izango dira tabernetan. Taberna bakotzak, dastatu beharreko garagardoagaz egokia dan eta bat datorren pintxo bat eskeiniko dau. Hamabost euroren truke lau garagardo eta lau pintxo dastatu ahal izango dira. Martiaren 26ra arte, izena emon eta ordaindu daiteke Hagina Tabernan.

Kata ibiltari hau BBPko batek zuzenduko dau, zehaztasun eta informazioa emonaz. Hemanin garagardo artisaua egiten daben hiru estadubatuarek osotuten dabe BBP eta Californiako estiloko garagardoak egiten dabez.

Areatzako Garagardozealen Elkarrean

Areatzako Garagardozealen Elkarrean-Berlaro urte honen hasieran eraturako alkarrean da. Zerbeza munduan interesa daukien hiru billaroztar alkarrean dira, "Arratia mailan daukagun garagardo on eskeintza eskasa

DIMA

Urte sasoi bakotxagaz azoka berezia egingo dau Igitiek



Erredakzioa

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkarrean, hilean azoka bat egiten dau Diman, eta urte sasoi aldatukeran, azoka berezia izaten da, konbidau edo ekintza desbardinakaz. Udabarria agurtzeko azoka berezia martiaren 19an izango da. Azoka horretan Korrikaren aldeko pintxopotea koordinatuko dabe Igitieko baserritarak.

Pintxo-potea, Arratiako guraso alkarrean egindako pintxoakaz izango da, batutako dirua AEK-ri emoteko. Zenbait alkarrek, azoka egunak aprobetxatu gura izaten dabez euren ekimenak martxan ipinteko, Igitiekoen koordinazioagaz.

ikusita" Pablo Illarregi alkarrekoak adierazotakoaren arabera. Alkarrearen helburuak dira, Arratian garagardo artisauaren kulturea zabaltzea eta indartzea ikastaro, dastaketa eta azoken bidez; eta etxeko garagardoaren ekoizpena bultzatzea.



ZERBEZA KATA IBILTARIA

Aprilak 1 Areatzan

4 litera - 4 alkarreko 10€ prezio - 15€ prezioa

Aparta eta ordaindu, Hagina

Eje amara - martiak 15

Berlaro

IGORRE

Udalak eta herritarrak goi-tensiko lineagaz desadostasuna azaldu eutseen REEko ordezkariari



Udaletxe aurrean egindako konzentrazioa.

Alegazioak aurkeztu ondoren, Igorreko Udala, REEko (Red Electric Española) ordezkariak batu da, Bizkaiko Foru Aldundiagaz eta Espainiako Industria Ministerioagaz dago hartu-emonetan eta abogadu bat hartu dau goi-tensinoko linearen kontra "igorretarren eta ingurumenaren interesak defendiduteko".

Erredakzioa

Martiaren 6an, 12:00etan, udal ordezkariak eta REEkoak batzarra eukien goi-tensinoko linearen gainean berba egiteko. Herritarrak horren jakitun, udaletxe aurrean konzentrazioa deitu eben. REEkoak konzentrazioa ikustean buelta eman eben, baina alkateak REEa deitu, eta batzarra egin eben Kultur Etxean.

Beinat Anzola Igorreko alkatea, Itsaso Bengoetxea EH Bilduko zinegotzia, EAJ-PNVko Andere Ortuzar eta Koldo Atutxa zinegotziak, arkitektoa eta aparejadorea egon ziran batzar haretan. Udalagaz egon aurretik Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailekoak egonda egon ziran REEkoak eta Foru Aldundiak eskatutako aldaketak egiteko prest

agertu ziran. Batzarra amaitutakoan alkatea urten zan, konzentrauta egozan herritarrak batzarrean berba egindakoaren barri emoteko.

Espainiako Industria Ministerioagaz hartu-emonetan

Martiaren 6ko astean bertan, Igorreko Udala Espainiako Industria Ministerioagaz ipini zan kontaktuan, Ingurumen txostena barriro egiteko eskaria eginda eukalako eta erantzunik ez ebalako jaso. Eskaria "lege-aholkularitza baten dagoala eta laster izango dogula horren barri" erantzun eutsiela azaldu dau Itsaso Bengoetxea zinegotziak.

Udalak, Ekologistak Martxaneko abogadu bat kontratau dau, hurrengo pausuk zeintzuk izan behar diran jakiteko.

DIMA

Jonan Fernandez, Arratiarrakaz berbetan zikloan hizlari



Jonan Fernandez.

Erredakzioa

Jonan Fernandez, Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia Dimako Abaroa Aretoan izango da martiaren 30ean, 19:00etan, EAJ-PNVk antolatutako *Arratiarrakaz berbetan* ekimenaren hirugarren saioan. Ekimenak, politikearen esparrutik arlo eta leku desbardinetan lan egiten daben personak hurreratzeko helburua dauka.

Egitasmoa urtailean hasi zan eskualdeko udalerrietan. Jonan Fernandezek Josu Erkorekaren, Eusko Jaurlaritzako bozeroale eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren, eta Aitor Esteban, Kongresuko EAJ-PNV taldeko bozeroalearen, lekukoa hartuko dau. Berbaldi ziklo honen lehen saioak Igorre eta Zeanurin egin ziran.

Arratiarrakaz berbetan ziklo irekia da; hau da, biztanle guztiai zuzenduta dago, hizlariak eta parte hartzaileak gaur egun erakundeetako agendak marketan dabezan eta euskal gizartearen kezka nagusien gainean berba egiteko. Oraingo honetan, Jonan Fernandezek bakeaz, bizikidetzaz, giza eskubideez eta lan-kidetzaz egingo dau berba bertaratutakoak. ETaren amaiera ordenauaz eta giza eskubideen urraketen alorrean garatu diran politika publikoez, espetxe politikari norabide barria emon beharraz, eta errefujiaduak hartzeako prozesuez be egingo dau berba.

Hitzaldi ziklo honetan parte hartuko dauan hurrengo politikaria Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, izango da.

LEMOA

Andra asesinaduen kontra, zaratea Lemoako eskolan



Eskolan egindako konzentrazioa.

Erredakzioa

Martiaren 8aren inguruan, Lemoako Juan Bautista Eguskiza Meabe IPIIn, andra izate hutsagaitik asesinaduen andren inguruko hausnarke-tea egin eben gelaz gela eta eskola mailako eltzee-zalparte hurrengo egunean.

"Ikusi dogunez andra bat asesinetan daben bakotxean minutuko isilunea eginda ez dala ezer konponduten, ebatzi genduan zaratea egitea" azaldu deutso begituri eskolako irakasle batek. Holan, ume bakotzak ekarri eban zaratea egiteko tresnaren bat: zartagina, eltzea edo txilibitua eta holan, ume batek min egitearen kontrako mezua irakurri ostean, ikasle, irakasle eta gurasoak pare bat minutuz zaratea egiteari ekin eutsien.

LEMOA

Plan Orokorren erredakzinorako parte hartze prozesua martxan

Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) erredakzinorako, Lemoako Udalak partaidetzearen lehenengo fasea abiatu dau. Aurreko plana 2008an egin zan eta zortzi urteko indarraldia eukan.

Erredakzioa

Estudio K-k egingo dau herritarren partaidetza programea eta martiaren 9an, erredakzioaren prozesua aurkeztu eutsen lemoaztarri.

Plan Orokorren herri erreda definitzen dau eta urigintzatik harago doa. Izan be, eskeini gura dan aisialdia, genero ikuspegia, euskera eta bultzatu gura diran arloak, islatzen dira Plan Orokorrean, beste gauza askoren artean.

Lehenengo fasean partaidetza maila desbardinak dagoz.

Estudio K-ko teknikariak azaldu eben tailer bi egongo dirala herri erreda definituteko eta herritik zeharreko bisitaldi bat, konpondu beharreko arazoak bertan ikusi ahal izateko. Tailerok martiaren 16an eta 30ean, 19:00etan izango dira; eta urtekerea apirilaren 17an.

Modu presentzian edo interneten bidez parte hartu daiteke Plan Orokorren erredakzio prozesuan. Udaleko webguneko Lemoa.tzen atalean prozesuaren gaineko informazio guztia eta ekarpenak egiteko galdeketa egongo dira.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gas
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIARRAKAZ BERBETAN

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

PELOTEA

Eskola Kirola programea dala-eta, aldaketak Arratia-Nerbioi Txapelketan

Erredakzioa

Igaz arte, eskualdeka antolatuten zan eskolaumeen eskupeletoa, Arratia-Nerbioi zonaldeko pelota eskolen artean antolatuta, udal batzuen laguntzeagaz. Arratia-Nerbioi finaletan, Arratia eta Nerbioi eskualdeetako pelota eskolak hartzean eben parte; tartean, Arratiako bostak; hau da, Areatza, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuriko pelota eskolak. Partiduen egutegia eta finaletako jaiak klubak antolatuten eben. Finalak jokatuteaz gain, 500 ume eta gazte pelotari inguruk desfilea egin eta pelotan jokatu edo euren eskolako animetera batzean ziran finaletan. Azkenean, sari banaketea egiten zan eta edade guztietako irabazleak txapela jantzi eta garaikurrak emoten jakiezan.

Baina antolakuntza hori salbuespen bat zan Eskola Kirolen artean, eskupeletoa holan antolatutako Eskola Kirol bakarra zan. Aurten, Eskola Kiroletako araudiari jarraituz, 9 urtetik gorakoak Bizkaia mailan jokatu dabe. "Orain arte lau zona egoten ziran, baina orain batu egin dira. Bilbotik, Federaziotik, antolatuten dira partidu guztiak. Klubak apuntau egiten ditu pelotariak, maila desbardinak emoten deuskuez aukeran, hiru-lau maila eta gero ateraten dabe egutegia. Zeanuriko bateri tokau ahal jako Zornotzara edo Bermeora joatea" dino Luis Angel Erkiaga Zeanuriko Joko Alai Pelota Eskolako presidentea. Antolakuntza modu honek gurasoen inplikazio handiagoa dakar, partiduak jokatuteko urrunago joan behar izaten dalako; beste Eskola Kirola programako kiroletan lez.

Lehiaketak 11 urtetik gorakoentzat

Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programea 9 eta 13 urte bitarteko umeentzat da; hau da, Benjamin, Kimu eta Haur mailakoentzat. "Bizkaiko neska-mutilak, urtero, kirola egiteko aukera ugari euki dagien egiten dogu lan, kirola eginez gozatzea eta euren eguneroko bizitzan kirola egiteko ohitura hartzea da gura doguna. Kirolak balioak transmitiduteko balio behar dau, gizarte osasuntsu bat lortzeako bide izan behar dau" dino Foru Aldunditik.

Dana dala, Eskola Kirola programan sartu aurretik, pelotan hasten dira ume asko. Arratiako pelota eskoletan 5, 6, 7 eta 8 urteko umeak be badagoz. Eta edade horretako

**Areatzako pelota eskolako ume eta gazteak.**

Aldaketa sakonak egon dira pelota eskoletan atzen urteotan, kirol honen irakaskuntzea, araudiari eta gizarteari egokitzeko. Alde batetik, eskupeletoa beste Eskola Kirolen antzera, Bizkaia mailan antolatzen hasi da eta ez eskualdeka. Eta bestetik, nesken presentzia Zeanuriko eta Areatzako eskola eta frontoietan.

umeen partiduen egutegiak, aurreko urteetan legez, Arratia-Nerbioiko pelota eskolak antolatu dabez aurten be, eta horretan jarraituteko asmoa agertu dabe antolatzaileak.

Bizkaiko Foru Aldunditik gogorra arazoten dabe legez ezin dala jokatu finalik 11 urte izan arte. Lehiaketea Kimuen kategoriaren bigarren urtean hasten da, 2005. urtean eta 2006an jaiotakoetatik aurrera, arinago ez. "Horregaitik antolatuten dauz Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak adin horretatik aurrerako Bizkaiko finalak, kirol-modalidade guztietan. Baina pelotearen kasuan, kirol honeri trataera berezia emoten jako, eta Aldundiko Kirol Zerbitzuaren adostasunagaz eta Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzaren bitartez, tokiko eta eskualdeko lehiaketea eta txapelketak antolatzen dira Kimuen lehenengo urteko pelotarietaz eta pelotari benjaminentzat, eta horretan posible da fase finalak egitea. Hori bai, beti be, Eskola Kirola programearen osagarri modura". Holan, hamaika urtera arte jolasari emoten jako lehentasuna, eta ez emoitzeari, eta konpetibidatea beranduago landuten da.

Aurten, Eskola**Kiroletako araudiari****jarraituz, 9 urtetik****gorakoak Bizkaia mailan konpetidu dabe**

Kimuen lehenengo urtean eta Benjaminetan ez da fase finalik egiten Eskola Programaren barruan. Horregaitik, Bizkaia mailan jokatu eben Benjaminak be final barik geratu ziran. Dimakoak finalerdiak irabazi ostean, Leioako pelota eskolearen kontra finala jokatzeo egozanean, Foru Aldundiaren aginduz, jokatu barik geratu ziran. "Azkeneko momentuan" Federaziotik jakinarazo eutsen Foru Aldundiak ez ebalu ixten finalak jokatuten edade horretako umeak. "Bizkaia mailan finalaurdenak eta finalerdiak jokatu ostean, ez zan oso atsegina izan umeak eta gurasoak hori azaldutea" dino Mauri Zapiko Dimako Txumulueta eskolako presidentea.

Eskola Kirola programaren osagarri moduan jokatu ziran txikitxo finalak Arrigorriagan zezeilaren 11n. BEGITUREN iturrien arabera, ehun bat ume batu ziran han, partiduak jokatu eta eskualdeko pelota eskolen topaketea egiteko. Lemoako eskoleak irabazi eban Hasibarrien mailako partiduak.

Haur mailan Zeanuri Bizkaiko txapelkun

Haur mailan, Zeanuriko Anton Erkiaga eta Maren Emaldi izan ziran

Bizkaiko txapelkunak. Honeek 14 urte egingo dabez aurten eta Euskadiko Txapelketea jokatuko dabe Bizkaia ordezkatzen.

Federatuak, hau da Kadete, Gazte eta Nagusiak be Bizkaiko Txapelketea jokatuten dabe, eta Kadete mailako Bizkaiko Txapela beste zeanuriztar batek jantzi eban, Orozkoko eskoleagaz jokatuta eban Lander Erkiagak.

Nagusi mailako finalak Gabonak aldera jokatu ziran. Lemoako klubeko Oier Etxebarria igorretarra finalera heldu ez zan arren, sano ondo dabil jokatzen. Zezeilan, Euskal Herriko Kluben arteko txapelketan, 3. geratu zan.

Neskentzako palea

Arratiako pelota eskoletan egon dan beste aldaketa garrantzitsua, Areatzan eta Zeanurin neskenentzako palak sortu dauan interesa izan da. Eskola Kirola programaren barruan dago, neskenentzako palea eta Bizkaian zehar izaten dira partiduak. Neskak frontoira erakarteko sartu eban Foru Aldundiak palea Eskola Kirola programan.

Arratiako pelota eskoletan neskenentzako palea sartzean hasi ziran orain dala lau urte eta emoitza desbardinak izan dau eskeintzak eskolen arabera. Holan, Areatzan eta Zeanurin arrakasta handia izan dauan bitartean, Dima, Igorren eta Lemoan ez da holan izan.

Areatzan, 29 edo 30 neska dagozala azaldu deutso BEGITURI Mikel Beldarrain entrenatzaileak. Txikerrenak, 6-7 urtekoak tenis pelota txikiakaz jokatuten dabe eta ondino ez dabe partidurik jokatuten. Kimu mailan hasten dira gomazko peloteagaz. Bizkaiko finalak maiatza aldean izaten dira. Areatzak Benjamin-Kimu zein Haur-Kadete kategoriaren jokalariek daukaz eta Beldarrainek uste dau Areatzakoak badaukiezala aukerak finaletara ailegetako.

Zeanuriko Joko Alain orain dala lau urte hasi ziran neskenentzako palea eskeintzen. Lehenengo urtean 15ek emon eben izena eta orain 26 palari daukiez. Foru Aldundiak martxan ipinitako "lehenengo urtean ez genduan ekiporik atera, baina pensau genduan interesantea izango litzatekela ateratea". Orduan eskupeletoan egozan nesken gurasoak egin eben berba, eta palan segiduteko prest agertu ziran ume eta gurasoak. Holan, 15 jokalarik bildu ebezan lehenengo urte haretan.

Federatuetan, Naia Berrio zea-



Anton Erkiaga eta Maren Emaldi.



Paule Goikuria, Ainhoa Mendia, Irati Astondoa eta Aitziber Egiarte. Artxiboko irudia.

nuriztarra Bizkaiko Bigarren Mailako Txapelketako finalera heldu da. Finala galdu dau eta txapel-dunorde geratu. Orain Euskadiko Txapelketan dago parte hartzean. Baina maila horretako bakarra zanez, Zaldibarko bategaz hasi zan jokatzan eta Zaldibarko eskolearen izenean dabil jokatzan.

Haur mailan, Itxaso Larrinaga eta Maialen Landajo Bizkaiko finalerako klasifikatu dira. Diman, Igorren eta Lemoan, talderik ez dagoan arren, pelota eskoletako arduradunak taldeak sortzeako beharrez dabizala azaldu deutsie BEGITURI. Etorkizunean neska gehiago egoteko frontoian.

Zeanuriko Joko Alain orain dala lau urte hasi ziran neskontzako palea eskeintzen



LABUR BIRA
FILM LABURREN XIV.ZIRKUITUA
MARTXOAREN 3tik APIRILAREN 7ra

www.topagunea.eus/laburbira

TOKIA: Areatzako Udal Aretoa
★ **EGUNA: Martiak 24** **ORDUA: 19:00** ★
AITOLATZAILEA: Zertu K.E. eta Areatzako Udala

Partekatza: Euskaltzaren topagunea, Barreian, Bizkaia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Areatzako Udala, TOKIKOM

MENDIA

Alex Txikon: "Gero arte Everest"

Oraingoa Everesteko tontorra neguan zapaldu ez arren, espediziorik bereziena bizi izan daua dino.



Reinhold Messner eta Alex Txikon.

Erredakzioa

Nepalgo agentziakoak konbenzidu, bigarren aldiz bidea ekipau eta barriro be martiaren 6an tontorra

egiteko asmoz bigarren kanpalekura igon ostean, eguraldiak aukerarik emon ez eta taldekideak oso nekatuta egozala ikusita, tontorra egiteko saiakera gehiago ez egitea ebatzi

eban Txikonek eta beheko kanpalekura jeitsi ziran bera eta bere espedizionkideak martiaren 8an.

Lemoaztarra indartsu egoan arren, taldekideak ez. Martiaren 6an, atsedena hartu ostean Txikon eta Nuri bigarren kanpalekura igon ziran. Taldeko besteak goizeko seiretan urtenda egozan eta hamahiru ordu egin behar izan eben bidea prestatzen. Oso nekatuta egozala eta haize zakarra ez zala baretzen ikusita, beheko kanpalekura itzultzea ebatzi eban Txikonek. Bakarrik saiatzea be pasau jakola burutik jakinarazo dau Txikonek baina hori "suizidioa" izan eitekeala ebatzi eban.

"Adiorik ez, gero arte baizik" idatzi dau Txikonek bere blogean. Everestek bere bihotzaren "zati handi bat" lapurtu deusala dino, abenduaren 25etik etxetik atera zan une beretik, baina naturaren kontra joateak ez daukala zentzurik. Inoz bizitako espediziorik bereziena izan dala eta bere bururaren eta gorputzaren mugak ezetuteko aukerea izan daua.

Beheko kanpalekuan be haize zakarra

Zenbaki hau zarratuterakoan, Alex Txikon Kathmandun egoan. Everesteko tontorra zapaltzea ezinezkoa zala eta bueltetea ebatzi ebanetik denporatxo bat pasau zan, menditik jeitsi arte. Beheko kanpamentuan be gogor jotzen eban haizeak eta egun batzuk pasau behar izan ebazan han. Martiaren 12an, zera idatzi eban Txikonek Facebookean: "Eguraldia kaxkar samar dabil, haize bortitza eta edur maila altua oztopo ditugu eta oraindino be ezin izan gara Behe Kanpalekutik jeitsi; izan be, eguraldiak txarrera egiten dauan bitartean, helikopteroa ezin da 5.250 metro honeetara igo, bertan daukagun material guztia jeitsi ahal izateko".



Beheko kanpalekutik babesa emon eutsan Txikonek Korrikari.

TRINKETEA

Lur Ziarrusta eta Jon Arana Bizkaiko txapeldun

Erredakzioa

Lur Ziarrustak eta Jon Aranak Bizkaiko Trinketeko Binakako txapela lortu eben Gazte mailan, martiaren 3an Abadinon jokatu-tako finalean. Finalean, Sopolako Kurene taldea izan eben aurkari eta Ziarrusta dimoztarra eta Arana abadinarra nagusitu ziran 40-29 emoitzeagaz. Nagusietan, Aspuru-Arabiourrutia abadiñoztarrak izan ziran Bizkaiko txapeldunak.

Ziarrusta eta Arana partidua

galtzean hasi ziran arren, bueltea emon eutsien. "Partidua galtzean hasi ginan, eurak aurretik, gero harrapau genduzan. Aurkaria eskutik justu ibili zan eta lortu genduan aldea ateratzea. Gero hori mantentidu egin genduan" azaldu deutso BEGITURI dimoztarrak.

GRAVNI Txapelketea

Martiaren 11n hasitako GRAVNI Txapelketan hartuko dau parte Lur Ziarrustak eta maiatzean, Euskal Herriko Trinkete Txapelketan.



Ziarrusta eta Arana.

Arratia
Ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21, 48112 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
milla mila mila

FUTBOLA

Andrazkoak puntuak atera behar dabez maila ez galtzeako

Erredakzioa

Arratiako andrazkoen taldeak atzenengo postuan jarraitzen dau liga amaituteko 5 jardunaldiren faltan. Hamazortzi puntu ditu Arratiak. Hamabostaldi honetan partidu bakarra jokatu dabe, hilaren 12an izan zan Bilboko San Ignacio taldearen kontra. 1 eta 3 galdu eban Arratiak. Atsedendian bana joan baziran be galdu egin eben arratiarrak, gehiago merezidu izan eben arren. Hurrengo partidua hilaren 19an jokatu dabe Ardoi taldearen kontra. Atzen bost jardunaldi honeetan ahalegin handia egin beharko dau Arratiak kategoria galdu gura ez badau.

Gizonezkoak ostera laugarren

postuan dagoz atzen partidu bietan lau puntu aterata. Hilaren lehen astegoienean Astrabuduako A taldearen kontra hutsna bardindu eben Igorren, eta hilaren 11n Uritarraren kontra jokatu partidua 0 eta 1 irabazi eben. Hurrengo partidua Busturiaren kontra jokatu dabe hilaren 18an, arrastiko 19:30ean Urbietan.

Gizonezkoen B taldeak osteratzen bi partiduak galdu egin ditu eta bietan emon da emoitza berbera, 4 eta 1ekoa. Artibai izan eben hilaren lehen astegoienean aurkari eta bigarrean Zaldia B. Hurrengo partidua hilaren 19an jokatu dabe eguerdiko 12:00etan Berriz taldearen kontra etxetik kanpo.

AZKOREA

Binakako Urrezko Aizkoraren zazpigarren txapela jantzi dau Aitzol Atutxak

Erredakzioa

Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza bikoteak laugarren aldiz jarraian irabazi dau txapelketa. Finala, Azpeitiko Izarritz pelotalekuan jokatu zan. Irabazleak 29 minutu eta 24 segundo behar izan ebezan lan guztiak egiteko; bigarren Saralegi eta Vicentek egin eben, 30 minutu eta 22 segundoko denporeagaz eta hirugarren, Arria V.a eta Otaegi izan ziran, 30 minutu eta 30 segundoko denporan.

Dimako aizkolariak espero eban legez, lehia handia egon zan finalen. Dana dala, Atutxa eta Mugertza onenak izan ziran eta eurentzat izan zan txapela. Publiko

handiaren aurrean azkolari bikote bakotzak 45 ontzako enbor bina, aizkolari bakotzak bana; zutik jarritako 60 ontzako enborra; beste 60 ontzako enbor bi etzanda; 45

ontzako bat zutik jarrita eta kanaerdikoa etzanda; lau kanaerdiko, 60 ontzako bi eta oinbiko bi ebagi ebazan ordu erdi eta segundo batzuen gorabeheran.



Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

ZINEA

Ekozinemaldia Artean

Erredakzioa

Ekozinemaldiko lau film ikusi ahal izango dira Artean, pelikula biko saio bitan. Martiaren 21ean, *No acapares la energía* eta *Guardiana de los ríos* dokumentalak ikusteko aukerea egongo da eta 23an, *Mni Wiconi: Altxamendua Standing Rocken* eta *Ni Urumea*. Saiok arrastiko zazpiretan izango dira Herriko Bentan.

Ekozinemaldia Ekologistak Martxanek antolatutuen dauan ekolo-



giaren gaineko zine erakustaldia da. Hamaikagarren edizinoa ura eta energian dago oinarrituta, eta ingurumenaz gainera, giza eskubi-deen urraketak be hartu ditu gaitzat, "Ura eta energia bizitzarako, ez heriotzerako" lemapean.

Ingurumena eta giza eskubi-deak

Lehenengo saioan *No acapares energía* film laburrak, gure eredu energetikoa, honen ondorioak eta eredu honetatik etekina ateratzen dabezanak salatzen dauz. Ondorengo dokumentala, *Guardiana de los ríos*, orain urtebete hil eben Berta Caceres-en gainekoa da eta erreken aldeko Honduraseko sei komunidadeen bururak kontetan ditu.

Bigarren saioan, *Mni Wiconi: Altxamendua Standing Rocken* egongo da ikusgai. Zortzi minutuko film honetan, Dakotako oliobidea gelditzeko Standing Rock-eko laktoten (sioux) bururak kontetan da. *Ni Urumea* dokumentalean barriz, erreka ondoko herrietako jentea eta Urumea ibaiaren arteko hartu-emonak kontauko ditu errekeak lehenengo personan.

DOKUMENTALAK

Kolonbiako bake prozesuaren gaineko dokumentalak Lemoan

Erredakzioa

Lemoako Udalak eta Mundubat Gobernuaz Kanpoko Erakundeak Kolonbiako Bake Prozesua azaldu-teko dokumental eta barriketaldi ziklo bat antolatu dau. Hiru saio izango dira jubilatuen etxe gaineko aretoan, 19:00etan, martiko azkenengo hiru astelehenetan.

Martiaren 20an, *Mujeres al frente, la ley de las más nobles* izeneko dokumentala egongo da ikusgai. Lula Gomezek zuzendutako film honek erakusten dau zenbait andra kolonbiarrek, gerraz eta indartsuenen legeaz nazkatuta, bakea eta mundu solidario, anitzago eta justuagoa lortzeako egindako apustua. Barriketaldirako, Betty Puerto egon-

go da; andra deseriratu, errefujia-du eta migraduen Barrera Colectiva taldeko partaidea.

Hurrengo astelehenean, hilak 27, Unai Aranzadiren *La paz insurrecta* ikusteko aukerea egongo da. Lan honetan, Unai Aranzadik jasoten dau dokumentu ofizialetan jasoten ez dana eta ia 60 urteko gerra eta azken gertaerak, akordioak eta estaduaren, FARC-EPren eta ELNren arteko topaketak ezetutea ahalbidetzen dau. Madrilgo Unibersidade Autonomoko Hugo Paternina izango da barriketaldia gidatzen.

Lehenengo saioa martiaren 13an izan zan. Orduan, Unai Aranzadi eta Mundubaten *Colombia invisible* ikusi eben bertaratutakoak.



Lula Gomez.

ANTZERKIA

Euskal Herriko imajinario musikarari errepassoa egiten deutsan lana Igorren

Erredakzioa

Martiaren 31n, 20:00etan, Tartean Antzerki Konpainiak *Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako*

istorioa umorezko lana eskeiniko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Ikuskizun hau Korrika kulturalaren barruan dago.

Ez dok hiru bikotearen lan ho-

nek euskal musikearen imajinarioaren errepasso ironiko, absurdo eta dibertigarria egiten dau. Euren aurreko lanetan ez bezala, oraingoan Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek hiru musikari-aktoregaz partekatuko dabe eszenalekua.

Ez dok hiru, Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak osotuten dabe. Urteak daroez bikote artistiko moduan antzerkia obrak, sortu, ekoiztu eta antzezten, *Kontendore baten istorioak*, *Lezio berri bat ostrukari buruz*, *Euskara sencilloaren manifestoa*, *Larru Hai-zetara*, *Euskarazetamol* eta *Lingua Nabajorum*, besteak beste.

Euren lanak, aktore bien alkarrizketetan oinarritzen dira; oraingo honetan musikearen laguntzea izango dabe.



Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak.

BERTSO SAIOA



Amuriza, Colina, Iturriaga eta Lujanbio Igorren

Erredakzioa

San Jose egunean, martiaren 19an, San Josetako bertso saioa izango da Igorreko Kultur Etxean, arrastiko zazpiretan. Miren Amuriza, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbiok osotuten dabe aurtengo kartela. Saio hau Korrika Kulturalaren barruan dago.

San Jose egunekoa, Arratian plazarik zaharrenetakoa da eta beti lehenengo mailako bertsolariak izaten dira bertan publikoaren gozamenerako. Aurten be lau bertsolari handi egongo dira Igorren.

Miren Amuriza, guraso bertsolari biren alabea, ezaguna da Bertsolari Txapelketa Nagusian eta Bizkaiko Txapelketetan parte hartu izanagaitik; baina baita, Berrian, eta beste aldizkarietan egiten dituan kolaborazioakaitik; edota musika taldeen-tzako egindako kantakaitik be.

Sustrai Colina, 2001, 2005eko, 2009ko eta 2013ko Txapelketa Nagusietan finalista izan da eta 2016ko Iparraldeko Bertsolarien Txapelketan irabazlea, besteak beste.

Unai Iturriaga durangarrak be ibilbide garrantzitsua egin dau bai bertsolaritzan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketetan eta Bertsolari Txapelketa Nagusietan parte hartu izanda; baita idazle moduan be. Esate baterako, bezperan Igorren ikusi ahal izango dan *Francoren bilobari gutuna* antzezlanaren testuaren egilea da Iturriaga, Igor Elortzagaz batera.

Azkenik, Maialen Lujanbiok be jarraitzaile asko ditu Arratian. 2009an Txapelketa Nagusia irabazi eban eta 2013an txapeldunorde izan zan. Areatzan, martiaren 24an eta Igorren apirilaren 7an, Lujanbioren koplak ikusi ahal izango dira pantailan Laburbirako *Beti bezperako koplak* film laburrean.

BERTSOLARITZEA

Arratia ez da sailkatu finalaurrekora

Erredakzioa

Arratia Institutuan, Igorren, jokatutuan martiaren 14an, XXV. Bertsolari Gazteen BBK Sarike-tearen bigarren kanporaketea. Arratiakoak Enkarterri/Ezkerralde taldea eukien aurkari eta bigarren honeek lortu eben finalaurrekoe-tarako pasea 369,5 puntugaz. Arratiakoak 296,5 puntu lortu ebezan.

Hamazortzi urte arteko kategorian, Maria Atutxa, Paule Corbacho eta Amaieur Atxa izan ziran Arratiako bertsolariak. Hemeretzi eta hogeta lau urte bitartekoen kategorian barriz, Maddi Zabalo, Aritza Orue eta Lurdes Ondaro.

Saioa, Itxaro Juaristik aurkeztu eban, eta Jurgi Fuentes, Juanjo Respaldua eta Miriam Juaristi egon ziran epaimahaiak.

Finala, martiaren 31n izango da, Bilboko BBK Salan, arrastiko 19:00etan.

Taldekakoa

Arratiako talde bi dagoz Bizkaiko Bertsolari Elkarteak antolatutako Bizkaiko Taldekakoa Txapelketan. Hiru fasetan jokatuko da. Lehenengo zezeilaren 13an hasi zan baina arratiarrak oraindino ez dabe parte hartu.

Finala bagilearen 3an jokatuko da.

ANTZERKIA

Ximun Fuchs-en zuzendaritzapean, Euskal Herriko hiru lurraldetako hiru antzerki taldek taularatuko dabe *Francoren bilobari gutuna* antzezlanaren martiaren 18an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Gerrak eta frankismoak eragindako osatu bako gaixotasun eta zaurien gainean hausnartzeko lana



Erredakzioa

Testuaren egileak Unai Iturriaga eta Igor Elortza dira eta antzezleak, Ander Lipus, Patricia Urrutia, Pako Revueltas, Erika Olaizola, Manex Fuchs, Zoila Berastegi eta Urko Redondo.

Bizkaiko Artedrama, Lapurdiko Le Petit Theatre de Pain eta Gipuzkoako Dejabu Panpin Laborategiak alkarlanean, drama gogorra antzetuko dabe, "iraun behararen gaitzak jotako komunitate baten hazurren eta guzurren erradio-

grafia traumatologikoa". Etorkizun bideragarriak ez daukan ospitaleko istorioak kontetan dauz *Francoren bilobari gutuna* antzezlanak. Inakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeta sei urte eta gerra zibileko obus baten txatala buruan, iragana eta oraina kateatzen dira Migel eta Kristina medikuen ametsetan. Itxarongean sekula agertzen ez diran pazienteen izen zerrendak entzuten dira ordena alfabetikoan eta Carmen Martinez-Bordiuk beteten dau bihotzeko aldizkari baten azala.

LABURBIRA

Diman egindako *Elemakarrak* filma eta beste euskerazko 7 film labur Areatzan eta Igorren

Laburbira, euskerazko film laburren zirkuitua Euskal Herriko 32 herritan izango da eta 8 film ikusi ahal izango dira.

Erredakzioa

Horreen artean, Diman egindako *Elemakarrak* izango da. Hitzordua, martiaren 24an, 19:00etan Areatzako udaletxean edo-eta apirilaren 7an, 20:00etan Igorreko Kultur Etxean da. Zertu Kultur Elkarteak antolatuten dauz emonaldiak Arratian eta Areatzako eta Igorreko Udalak babesten ditu.

Euskaltzaleen Togaguneak antolatuten dauan fil laburren zirkuitua, martiaren 3an hasi zan Azpeitian eta Igorren amaituko da apirilaren 7an. Zazpi film labur eta Euspot Le-

hiaketako iragarki onenak osotuten dabe eskeintzea. Antolakuntzak 22 film jaso ebazan eta horreetatik zortzi aukeratu dabez proiektetako.

2017ko filmak

Honeek dira ikusi ahal izango diran filmak: *Azken saskia* (Oier Fuentes, 2016); *Beti bezperako koplak* (Ageda koplak taldea, 2016); *Ihesa* (Alejandro Diaz Castaño, 2016); *Hileta* (Kepa Sojo, 2016); *280°* (Uda Films, 2016); *Elemakarrak* (Ibon Iza Totorika, 2016); *Jalgi* (Eki Pagoaga, 2015) eta 2016ko Euspot Lehiaketako onenak.



LEHIAKETE

Lemoako VI. Narrazio Lehiaketea

Erredakzioa

Apirilaren 23ra arte bialdu daitezke lanak Lemoako VI. Narrazio Lehiaketan parte hartzeako. Egileak hamazortzi urtetik gora euki behar dabe eta gaia librea da.

Partaide bakotzak narrazio bakarra aurkeztu ahal izango dau eta gehieneko luzeera sei foliotakoa izango da. Lanak Lemoako udaletxean aurkeztu behar dira edo helbide honetara bialdu kultura@lema.net. Idazlanak izenburua edo izengoitia bakarrik euki behar dabe, egilea identifikatu leiken ezelango zehaztasun barik, datuok kartazal zarratu baten ipini behar dira.

Sariak

Lau sari egongo dira. Lehenengo saria 250 eurokoa da; bigarrena 150ekoa; hirugarrena 100ekoa eta Lemoako lanik onenak be 100 euroko saria jasoko dau. Saridun guztiak diplomea be jasoko dabe eta sariak maiatzaren egingo dan aste kulturalean bananduko dira. Saritutako lanak Udalaren webgunean argitaratuko dira.



DUNBA

Inauteriak, martiaren 8a eta Korrika

Ugarana Dimako eskolea

Aurten inauterietan, eskolan aukeratutako gaia "Munduko herrialdeek emakume izena dute" izan da. 5. mailakoak antolatu eben eguna. Agendan be hilerok andra ezkutu bat agertzen da. Igaz Euskal Herriko inauterietan zentru ginan eta aurten osteratu mundu osora zabaldu gara. Inauteriak baino egun batzuk arinago gela bakoitxak muralaren zati bat marraztu eban.

Kalejira bategaz emon geuntsan hasikerea emonaldiari. Olinpia, Trinidad, Alaska, Afrika, India, Esperanza... bisitatu genduzan, iglu eta guzti! Irakasleak be euren jantzea eskeini euskuen. Amaieran eskola osoak batera mura-

lean argazki bat atera genduan. Sano egun polita izan zan.

Eskolan ospatu dogun beste egun bat martiaren 8a izan da. Dimako eskolan jai bat egin genduan, urtero legez, andren eskubideen alde. Ekintzak goizetik hasi ziran. Lehenik gela bakoitxak bideo bat ikusi eban. Bideo hori etxeko lanen banaketari buruzkoa izan zan.

Gero 11:30ean hallean batu ginan eta LH6, 4 eta 3koak andra batzuen aurkezpena egin eben. Ondoren, horman atxikita egoan hiru metroko biribil baten azalpena egin eben LH5ekoak. Biribil horren helburua ikasle guztiok hamabost egunetan 9 erronka betetea da. Erronkak honeek dira: ohea egin, harrikoa egin, komu-

nak garbitu, oinetakoak garbitu... Etxean erronkak beteten goazen neurrian, biribilean adierazoko



dogu eta emoitxakaz hausnarke-tea egin ahal izango dogu.

Laster Korrika dator eta gure eskolan LH3koak antolatuko dabe egun hori. Korrika egunean 2 urtetik LH6ra Korrika Txikin parte hartuko dogu baina LH2 gorakoak Korrika Txiki egin ostean Santurura joango gara galapan.



Santurun Igorrekoakaz alkatuko gara eta lekukoak aldatuko doguz. LH4tik beherakoak Igorreko eskolako lekukoa Dimako eskolara eroango dabe eta Dimako LH5 eta 6koak Igorreko Kultur Etxera joango gara galapan. Han Igorrekoakaz batera bazkaldu eta ekitalditxo bat egingo dogu.

Bitartean Dimako eskolakoak ekintza batzuk egingo ditue.

AGENDEA

MARTIAK 15

AREATZA

19:00etan, Korrika Batzordea udaletxean.

BEDIA

Hilaren 23ra arte, Udalak antolatutako Txiki-Txokorako, Udalekuetarako eta Bediako Uda Gaztean izena emoteko epea.

IGORRE

Hilaren 22ra arte, *Luftwaffe-ren erabateko arrakasta. Kondor Legioak eragindako Gemikaren suntsipena* erakusketea Kultur Etxean.

LEMOA

Apirilaren 23ra arte VI. Narrazio Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik. Udaletxean edo kultura@lemoa.net helbidean aurkeztu behar dira lanak.

MARTIAK 16

DIMA

18:00etan, Hizkuntza Proiektuaren gaineko saioa eskolan. Mondragon Unibertsitateko Idurre Alonso irakasleak aholkularitza lanak egingo ditu.

IGORRE

10:00etan, Igorbili Jubiladu eta pensinodunentzako bide gomietatik ibilaldia eta luzaketak. Udalak antolatuta.

18:30ean, Igorreko euskerearen kale erabilerearen neurketearen emoitak. IKEn.

LEMOA

19:00etan, Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra. Herri eredia definitzeko tailerra.

MARTIAK 17

BEDIA

18:15ean, hilaren 19ra arte, urtekerea Baqueira Beret-era eskiatzera autobus geralekuan.

ZEANURI

17:00-19:00, maiatzak 7ko Gure Esku Dagoren galdeketerako sinadura bilketea frontoian.

ZEBERIO

Gaztelekuan Zientzia Eguna.

19:00etan, Iraungoriko Marimiri Zurrunkateatrotoren itzal titere lana Ermitazaharrean.

MARTIAK 18

IGORRE

10:00etan, Kultur Etxeko plazan, umeen urtekera

Arratiatik. 20. Korrikaren aldeko mendi martxea.

AREATZA

Lamino Mendi Taldearen urtekerea, Larrun (900 m.) eta sagardotegia.

20:00etan, Euskelga. Saint Patrick's Day The Quiet Corner-en.

ARTEA

AKKT-k antolatuta, eskiatzera joateko urtekerea.

IGORRE

08:20an Jubiladuen ibilaldia. Igorre (autobusa)-Bedia-Ubine-Ereño-Mandoi azpi-Abxarrieta-Aretoa.

20:00etan, *Francoren bilobari gutuna* antzezlan Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Gaztelekuan Kola Kao tertulia.

MARTIAK 19

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak eta Udalak antolatuta, Aizalekura igoera bildotsen jaiotza ikustera. Goizeko urtekerakulturala.

DIMA

11:00etan, Igitieko udabarriko azoka berezia.

IGORRE

19:00etan, San Josetako bertso saioa Kultur Etxean.

Colina, Lujanbio, Amuriza eta Iturriaga.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako urtekerea, Legunboko Haitza (1.128 m.)-Baio (1.197 m.).

Kantuan eta jantzan Igorren

Martiaren 25ean, goizetik hasi eta gauera arte, kantauk eta jantzak hartuko dabez Igorreko kaleak "Udabarrie koloretuten" izenpean antolatutako jaiari esker. Euskal jantza taldeak, eta Arratiako kantuzale eta jantzazaleak Igorren batuko dira, egun osoko jaietan.

Goizean, Igorreko Arantzarte eta Beasaingo Aurtzaka jantza taldeak, kalejireak egingo dabe 11:15etik aurrera. Gero, 12:00etan, jantza saioa eskeiniko dabe udaletxeko plazan. Eguraldi txarra egin ezker, Lasarte Aretoan. Arrastiko seiretan, Arratia Dantzan, eta jantzan egin gura daberen guztiak jantzaldia izango dabe Erdizka Lauetan taldearen musikeagaz, Kultur Etxeko plazan eguraldi ona egiten badau eta Kiñu Gaztetxean txarra egin ezker.

Ondoren, iluntzeko 20:00etan, kantuzaleen txandea izango da. Arratia Kantuz-eko kantuzaleak eta animetan diran guztiak kantuan ibiliko dira herriko zehar Eingo kantan eta dantzan taldearen musikearen laguntzeagaz.

Jai hau, Arantzartek eta jantza eta kantuaren inguruan dabilen Igorreko jentek antolatu dau, Kiñu Gaztetxea, Igorreko Udala, Arratia Kantuz eta Arratia Dantzaz taldeen laguntzeagaz.

ZEBERIO

08:00etan, Austarri Taldearen urtekerea. Abxarte-Urkiolagirre-Saibi-Urkuleta. Aukeran, Urkiola-Saibi-Urkuleta. Plazan. Izen emotea martiaren 16ra arte edo austarrimendialdea@gmail.com-en.

MARTIAK 20

IGORRE

10:30-12:30, Andra Migraduen Topagunea. Miriam Herbonegaz Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, Udalak eta Mundubat-ek antolatuta, *Mujeres al frente, la ley de las más nobles* dokumentala eta Betty Puertogaz barriketaldia. Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

MARTIAK 21

ARTEA

11:00etan, Mataderoak berbiztuteko asanbladea.

19:00etan, Ekoinemaldia *No acapares la energía* eta *Guardiana de los ríos* filmak Herriko Bentan.

MARTIAK 22

ARTEA

17:00etan, Mataderoak berbiztuteko asanbladea.

LEMOA

17:00etatik 19:00etara, Andrentzako lidergo tailerra (gaztelaniaz), Irantz Varelaren eskutik.

MARTIAK 23

ARTEA

19:00etan, Ekoinemaldia *Mini Wiconi: Altxamendua Standing Rocken* eta *Ni Urumea*. Herriko Bentan.

DIMA

18:00etan, Hizkuntza Proiektuaren gaineko saioa eskolan. Mondragon Unibertsitateko Idurre Alonso irakasleak aholkularitza lanak egingo ditu.

IGORRE

10:00etan, Igorbili Jubiladu eta pensinodunentzako bide gomietatik ibilaldia eta luzaketak. Udalak antolatuta.

LEMOA

11:30ean, Kirlan eta Udalak antolatuta, Ariketa fisikoa 3. adinean. Kiroldegian.

MARTIAK 24

AREATZA

18:00etan, Gure Esku Dagoko berbalde-asanbladea. Anartz Goia, Liemi Olmedo eta Alex Zenarruzabeitia, udaletxean.

19:00etan, Zertu Kultur Elkarrekin eta Udalak antolatuta, Laburbira. 8 film labor euskeraz udaletxean.

IGORRE

19:30ean, Peio Ospitalen kontzertua, *Amasa... hatsa... bizia!* Andra Mari eleizan.

ZEANURI

20:30ean, Bilbobillies rock taldearen kontzertua frontoiko tabernan.

ZEBERIO

Gazte Lekuan film labor bat grabau.

MARTIAK 25

AREATZA

20:00etan, Iratxe Mugitek bere diskoa aurkeztuko dau The Quiet Corner-en.

IGORRE

22:00etan, zinea *Multiple* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Gazte Lekuan film labor bat grabau.

MARTIAK 26

ARTEA

18:00etan, *Pum! Kuboa* umeentzako ikuskizuna Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea *Teresa eta galtzagorri* (euskeraz); 19:30ean, *Multiple* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *El tiempo de los gitanos* (1989, Yugoslavia) Eskola Zaharrean.

MARTIAK 27

LEMOA

19:00etan, Udalak eta Mundubat-ek antolatuta, *La paz insurrecta* dokumentala eta Hugo Pateminagaz barriketaldia. Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

MARTIAK 28

ZEANURI

18:00etan, Inigo Ramosen berbaldea "Jazarpenerriaren eta eskolan". Zeanuriko eskolan. Zeanuriko Guraso Eskolan eta Areatzako Guraso Elkarrekin antolatuta.

MARTIAK 29

LEMOA

17:00etatik 19:00etara, Andrentzako lidergo tailerra (gaztelaniaz), Irantz Varelaren eskutik.

MARTIAK 30

DIMA

19:00etan, EAJ-PNVk antolatuta, Jonan Fernandez, Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia *Arratiarrakaz berbetan* berbalde zikloan. Abaroa Aretoan.

IGORRE

10:00etan, Igorbili Jubiladu eta pensinodunentzako bide gomietatik ibilaldia eta luzaketak. Udalak antolatuta.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra. Herri eredia definitzeko tailerra.

MARTIAK 31

BEDIA

17:00-19:00, Korrikaren gaineko tailerak ludotekan.

DIMA

17:00etatik 20:00etara, Maitasun Erromantikoari buruzko tailerra, Josebe Iturrioren eskutik. Udaletxeko Batzar Gelan.

IGORRE

19:00etan, Aintzane Ezenaroren berbaldea "Memorian oinarritutako bakea: etorkizunaren bermea" Kultur Etxean.

20:00etan, *Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa* antzezlan Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakaragarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

SALGAI

Gimnasioko materiala salgai. Bankadea, barra, mankuernak eta pesak. Arratian bizi bazara 50 euro garraioa barne. Telefonoa 657 707 725.

DANERIK

LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte

hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabena jakoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukazu. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Francoren bilobari gutuna* antzezlanerako.

Itsaso Arrizabalaga (Dima)
Iñaki Larrakoetxea (Zeanuri)



2 Arratiako Gurutze Gorriak emondako motxilea, Lumigasa eta kanpingasa.

Luis Mari Uriarte (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Argaldu. 2.- Zeregina. Bokala.
3.- Kodaina. Hotza adierazoteko.
4.- Bokala. Animalia. 5.- Errama.
Berrogeta hamar erromatar. 6.- Pasau.
7.- Suagaz batera. Gizonezkoen izena.
8.- Bokala. Hegabera, enada. 9.- Leku, alde.

GOITIK BEHERA

1.- Orea. Aldats. 2.- Letra izena.
Nekazariaren lanabes. Bokala.
3.- Hegazkada. Erbioa. 4.- Epaila.
5.- Tantaloa. Guztiz. 6.- Uranioa.
Ernea ez dana. Noz. 7.- Ez hotz ez bero. Txarriari deitzeko hotsa.



Topau zazpi garraibideren izenak.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | I | S | I | K | U | M | E | T | A |
| B | O | L | K | A | M | I | O | I | A |
| I | G | A | R | A | B | A | T | O | L |
| Z | A | O | U | J | E | R | B | A | O |
| I | T | R | A | N | P | O | T | A | T |
| K | A | E | S | U | L | E | A | R | I |
| L | U | T | X | E | N | K | A | A | Z |
| E | R | P | U | R | U | N | B | S | O |
| T | X | O | G | A | B | R | A | U | N |
| A | Z | K | O | I | E | U | Z | B | O |
| N | U | I | A | M | E | T | R | O | A |
| K | E | L | U | N | P | I | Z | T | E |
| U | R | E | H | I | E | D | A | U | T |
| G | A | H | I | B | I | R | T | A | Z |
| I | S | T | A | D | E | Z | T | X | U |

AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 61 75

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: vnozku@euskalnet.net

LURDES ORTEGA

"Korrika Kulturala da jenteak ikusi dagian, Korrikak eskatu bai, baina emon be emoten dauala"

Lurdes Ortega Lahera, AEK-ko irakaslea eta 20. Korrikaren Arratiako arduraduna da. Bilboztarra jaiotzaz, Bedian bizi da atzenengo 20 urteotan eta Arratiako AEK-n egiten dau behar 1998tik. Korrika abiatu daiten aste batzuk baino falta ez diranean, Arratiako arduradunak tartetxo bat egin deutso BEGITURI antolakuntza lanak zelan doazen azalduteko. Korrika martiaren 30ean abiatuko da Otxandiotik eta Otxandio Arratiako AEK-ren eremuaren barruan dago. Arratiatik aprilaren 7ko goizaldean pasauko da.

Erredakzioa

AEK Arratiak ze eremu hartzean dau? Zein herritako ikasleak daukazue?

Arratiako 9 herriak eta Otxandio hartzean doguz. Hau da, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Otxandio ikasleak daukazue. Horixe da gure eremua eskolak emoteko zein Korrika antolatuteko.

Euskaltea Igorren bakarrik daukazue? Beste guztiak dira gela desplazauak?

Bai. Momentuz egoitza Igorren dago. Lemoan, Areatzan eta Otxandion gela desplazauak daukazue. Bedian be eskolak emoten doguz. Hau da, klaseak

Bedian, Otxandion, Lemoan, Igorren eta Areatzan, bost herritan emoten doguz. Baina inoz Ubiden eta Diman be... ia-ia herri guztietan emon doguz.

Zenbat ikasle daukazue?

Momentu honetan 200 bat ikasle.

20. Korrikaren Arratiako arduraduna zara. Zer suposatzen dau horrek?

Koordinazio lanak egitea eta antolakuntza lanak. Alde batetik, koordinazioa Bizkaia eta Euskal Herriko Korrikagaz eta gero Arratiako Korrika antolatzea. Korrika Kulturala, Korrika Txikiak, Korrikalagun, kilometroen salmentea, lasterketa bera antolatzea, ibilbidea markatzea... Bueno ibilbidea Euskal Herriatik emonda etorten

da baina guk lekuko aldaketak non egingo diran zehaztu behar doguz, banandu nork non egingo dauan eta abar.

Antolaketa lanak aurrera doaz. Ia-ia azken txanpan gagoz eta apur bat estresauta gagoz, ansiedade puntu bategaz, baina hori Korrika guztietan gertatzen jaku.

Zelan doa kilometro salmentea?

Ondo. Jente askok erantzun dau baietz esaten eta aste honetan aurreko Korrikako erosleak kontaktuan parauko gara zehaztuteko ea gura daben ala ez eta jente barriarengana be joko dogu.

Hemen 50 km. daukazue salmentea eta momentu honetan (martiak 6) 33 erosle daukazue baietzatuta. Batzuek kilometro erdia, beste batzuek kilometro osoa erosiko dabe baina ondino bada-goz erosteko. Eta gura dauanari egingo jako lekua beti. Ez dago arazorik, kilometroa gura daben guztiak egingo jakie lekua.

Korrika egunean zer egongo da? Zoritxarrez gaubez pasauko da Arratiatik.

Bai. Alde batetik, goizean Korrika Txikiak egongo dira, aprilaren 6an, ze gurean 7an sartuko da goizaldean. Beditatik sartuko da, Usansoloko mugatik 00:36 aldera. Gero. Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuritik pasau eta Ubidetik urtego da 03:55 aldera.

"Otxandio progamea ia-ia prest dago, dana bidean. Egun osoan zehar egongo dira gauzak, goizean hasita"



Aprilaren 6an, goizean Korrika Txikiak egongo dira eta gero arrastiz badakigu, adibidez, Areatzan egingo dana Korrikari etxoteko arrastipasa bat. Igorren be egongo da, plazaren inguruan, zeozer jateko, musikea eta erromeria, Gaztetxeak antolatuta. Eta beste herrietan oraindino ez dakigu gauza handirik, ez dago zehaztuta, baina giro ona ez da faltako.

Orain dala urte bi, aurreko Korrikan, furgonetan egon ziran Arratiako AEK-ko bi. Aurten be bai?

Aurten Arratiako hiru lankide egongo dira. Hirurak gainera ekipo berean. Lehenengoko egunean bertan urtego dira Otxandiotik. Joseba Irazabal, Gorka Barrenetxea eta Igor Elordui dira. Gurean dabilz irakasle eta Korrikagaz batera Otxandiotik abiatuko dira.

Korrika Kulturalako ikuskizunetako dirua Korrikarako da? Hau da, AEK-ko?

Ez, ez, ez. Korrika Kulturalaren asmoa ez da dirua ateratea. Korrikan egiten doguzan hainbat eta hainbat gauza egiten doguz dirua lortzeako, baina Korrika Kulturala ez da horretarako. Euskerazko aisialdia sustatzeko eta jenteak ikusteko Korrikak eskatu bai, baina emon be emoten dauala. **Ez da askorik falta 20. Korrika Otxandiotik abiatzeko. Prestatuta daukazue hangoa?** Otxandio progamea ia-ia prest dago, dana bidean. Egun osoan zehar egongo dira gauzak, goizean hasita. Goizean Korrika Txiki egongo da eta gero egun osoan zehar kale animazioa eta arrasti partean Korrika joan ostean, txokolatea, erromeria eta beste gauza batzuk. Eta gurako neuke animau jentea Otxandiora etorten eta gero Korrikan parte hartzean. Eta inork lagundu gura badeusku, laguntasuna behar izango dogu bezperako antolakuntza lanetan eta hurrengo egunekoetan.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA